

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideei dagokienez, lau baliabide-mota bereizten dira: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Baliabide horiek sailkatuta, guk honela banatu ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** lan egingo dugun lokala, kasu honetan gutako baten lonja/garajea izango dena. Jarraitzeko, ordenagailuak, inprimagailuak eta gure mugikorrak. Azkenik, gure produktuak diseinatzeko, ekoizteko, zehazteko eta paketatzeko materiala.
- **Giza baliabideak eta baliabide intelektualak:** hasiera batean, horrelako baliabideak epe laburrean sailkatzea erabaki dugu, hau da, enpresaren hasieran. Enpresa merkatuan berria denean, Asier arduratuko da gure produktu bakoitza diseinatzeaz. Imanol, berriz, gure produktu-sorta ekoizteaz arduratuko da. Bestalde, Maialeni hornitzaileekin eta banatzaileekin hitz egiteko lana esleituko zaio. Ondoren, Gorka arduratuko da webguneaz, eta June arduratuko da, bakoitzaren lana antolatzeaz gain, sponsoraz ere arduratuko da. Hala ere, gure enpresa hazten joan eta langile berriak behar ditugunetik aurrera, puntu hori aldatu egingo da.
- **Finantza-baliabideak:** hasiera batean, gure finantza-baliabideak geure aurrezkiak izango dira. Horiek nahikoak ez badira, gure irabazien % 10 inguru akzioetan inbertitzera bideratuko dugu. Inbertituko dugun kopurua ez da gehiegizkoa izango, gure enpresaren etorkizun oparoa bermatu nahi baitugu. Beraz, ezin dugu onartu gure inbertsioak aurreikusitakoa bezain ondo ateratzen ez badira galera handiegia izatea. Horretaz gain, bazkide berriak egiteko aukera aztertzen ari gara, edo, behar izanez gero, gure proiektuan interesa duten banku edo sozietateei laguntza txikiak eskatzeko aukera.